

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

949

IRAGARKIA, 2022ko otsailaren 11koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita, lehian beste eskabide batzuk aurkezteko aukera emanez, Zizurkil eta Usurbil udalerrietan (Gipuzkoa) dagoen Ezkeltzu parke eolikorako aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera.

Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoen bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoizteko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Ezkeltzu parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokalekua: Ezkeltzu.
- Eskatzailea: Green Capital Development XLIV SLU.
- Eragindako udalerriak: Zizurkil eta Usurbil (Gipuzkoa).
- Aerosorgailuen kopurua: 4.
- Instalaturako potentzia gordina: 18 MW.
- Eragindako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonal	UTM x	UTM y
A	572902	4786882
B	575860	4788200
C	576104	4787651
D	573146	4786334

Hori guztia argitara ematen da, hogeiei eguneko epean, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan azken aldiz argitaratu zen egunetik zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehian eskabi-deak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan izapidetze elektronikoko plataformaren bidez.

Donostia, 2022ko otsailaren 11.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.